



Elkargokide agurgarriak,

Elkargoko Gobernu Batzorde berriarentzat hain egoki izan den urte hau amaitzear dago.

Era batera edo bestera, parte hartze eta elkarlean gurekin aritu diren elkargokideak, batzordeak, delegaritzak... ,azken finean, egunero lanbidearen alde lan egiten duten gizarte hezitzaile orori urte amaitu aurretik eskerrak eman nahi dizkiegu.

2016ko urte berria guretzat erronkaz beterik dator, zuen beharrak eta eskaerak gertutik jarraitu nahi ditugu. Entzun nahi dizuegu eta Elkargoak zuengatik zer egin ahal duen jakin nahi dugu.

Urte bukaera ona igaro dezazuela opa dizuegu eta datorren urtea gogoz has gaitezen.

Besarkada bat eta Eguberri on

Elkargoko Batzordea.

## GIZARTE HEZITZAILEEN ELKARGOEN KONTSEILU NAGUSIA



2016 Sevilla 21, 22 y 23 Abril

¡A MÁS EDUCACIÓN  
SOCIAL  
MÁS CIUDADANÍA!

[VII Biltzarreko Programa](#) dagoeneko kontsultatu ahal duzue. Dakizuen 2016ko apirilaren 21, 22 eta 23an Sevillan burutuko da.

suaren antolatzaeei **2016ko urtarrilaren 31ra arte** bidali beharko dizkiezue. [Tailerrak](#) ere egiteko aukera duzue eta proposamenak **gure Elkargora 2016ko urtarrilaren 11ra arte** bidali beharko dituzue.

Halaber, Biltzarrean parte hartzeko [Komunikazioak](#) eta [Esperientziak](#) aurkeztu nahi badituzue Kongre-

Elkargoak **taldeko izen-ematea** antolatzen ari da. **Gure Elkargoerakin harremanetan** jar zaitzete 944 160 397 edo [ceespv@ceespv.org](mailto:ceespv@ceespv.org) taldeko izen emate edo **Promoción Amiga** egiteko. **2016ko urtarrilaren 20an, 00:00etan izen emateko epea itxiko da.**

**GHEE-CESPVREN BERRIAK****ELKARGOKO IRAUNKOR BATZORDEA**

Batzorde hau Elkargoko Gobernuaren Batzordearen ordezkoa da eta urriaren 5ean, eta azaroaren 9 eta 30ean batzartu dira.

**DEONTOLOGIA BATZORDEA**

Urriaren 30ean eta azaroaren 27an batzartu dira.

Urriaren 17an deontología jardunaldi bat antulatu zuten, bertan Gobernu Batzordeko, Deontologia Batzordeko eta Delegaritzetako lagunez gain beste Gizarte Hezitzaileen Elkargoko Deontologiako Batzordeetako kideek ere parte hartu zuten.

**KANPOKO JARDUERAK****BILBOKO UDALAKO GIZARTE ZERBITZUETAKO UDAL BATZORDEAREN OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUETAKO BATZORDEA**

Urriaren 8an Elkargoko ordezkari bat batzordera bertaratu zen.

**ARARTEKOA**

Urriaren 22an Vitoria-Gasteizen Delegaritzako lagun batek, Elkargoaren izenean, ARARTEKOA agindutako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuei buruzko balorapen txostenerako batzar batean parte hartu zuten.

**EHU/UPVko FHZF**

EHU/UPVko FHZFan Dekano eta Graduaren Koordinatzailearekin Gipuzkoako Delegaritzak batzartu zen Fakultatea eta Elkargoaren arteko Komenioa berrezkuratzeko eta urteko plangintza adosteko. Urtarrillan beste gaiak jorratzeko berriro elkartuko dira.

**BILBOKO UDALAKO GIZARTE ZERBITZUETAKO UDAL BATZORDEAREN OSOKO BILKURA**

Azaroaren 6an Osoko bilkuran Elkargoko Batzordeko lagun batek parte hartu zuen.

**GIZARTE HEZKUNTZA GRADUKO KONTSEILU/BEHATOKIKO BERRIKUNTZA ETA EKINTZA SOZIOHEZITZAILE AURKEZPEN JARDUNALDIA Irakasle eta Gizarte Hezitzaile Bilboko UE Leioa (EHU/UPV)**

Azaroaren 6an Elkargoko Batzordeko bi lagunek parte hartu zuten.

Elkargoak ordezkari baten bitartez Gizarte Hezkuntza Gradoko Kontseilu/Behatokiko estruktura iraunkorrean parte hartzen du.

**HAURRAK ETA NERABEAK BABESTEKO LEGE BERRIAK: ALDAKETA NAGUSIEI BURUZKO JARDUNALDIA. ARARTEKOA**

Azaroaren 19 Arartekok eta beste instituziotetako ordezkariak haurrak eta nerabeak babesa ematen duen sistema hobetzeko, EBko araei jarraituz, EBO n ekainean argitutako legeei buruzko azalpenak eman zizkiguten. Elkargoko Batzordeko bi lagun parte hartu zute. Boletín honetako artikulua batean jardunaldian esandakoaz informatzen da.

**ARABAKO GIZARTE ZERBITZUETAKO LURRALDE KONTSEILUA**

Abenduaren 11an Arabako Gizarte Zerbitzuetako Lurralde Konteiluko bilkuran Elkargoko delegatua egon zen.

**GHEE-CESPVREN BERRIAK****LAN ETA GIZARTE BATZORDAREN ERRONKAK**

Aurten elkargokideen hainbat eskaera jaso ditugu lan eta gizarte batzordean, lanbide karrera berbidertzeko laguntza edota aholku eske, lan eskubideak urratzearen aurrean orientazio eske eta gizarte hezitzaileen eta beste lanbide profil batzuen artean (psikologo, gizarte langile, zaintzaile, begirale, e.a.) dagoen desberdintasuna ikusten ez duten edo ikusi nahi ez duten erakunde publikoen aurrean gizarte hezitzailearen figura profesionalaren alde egiteko laguntza eske.

Hala ere, eskaera horiei erantzuten saiatzeaz gain, lege aholkularitzaren edo elkargokide laguntzaileen sarearen laguntzaz gain, gai izan behar dugu gizarte hezitzailearen lanbide profila aitortzeko kultura sortzen joateko, horrela, gizartearen beharrei (bazterkeria egoeran naiz egoera normalizatuan dauden giza taldeena) estaldura emateko beharrezko profila dugula ulertuko da eta bitzta kalitatea hobetzera bideratutako prozesu pertsonal eta sozial aldatzaileak sortuko dira. Azken batean, gizarte hezitzaile bat zer den azaldu behar dugu, zertarako balio duen eta zein den honen balio erantsia beste profilen aldean.

Hau da batzordearen amaierako xedea: hezitzailearen lanbide profila beste lanbide profil batzuen ondoan (ez aurrez aurre) berdintasunean kokatzea (gizarte arlokoen edo sozio-sanitarioen ondoan, batez ere), lerro lausoak antzematen baitira lanbide funtzio eta eskumenetan. Hori lortzeko, ez diegu soilik elkargokideen eskaera puntualei erantzun behar, erakunde kontratugile eta gizarte eragileekin ere lan egin behar dugu, gure zeregina zein izan beharko litzatekeen bideratu eta edonori azaltzeko.

Prestakuntza taldearekin modu koordinatuan lan egiten dugu unibertsitatean ikasitako gaitasunen eta lanbide errealitatearen artean doikuntza handiagoa lortzeko. Horretarako, unibertsitatearekin lankidetzan aritzen gara gizarte hezkuntzaren ikasleei lanbide irteerei buruz orientatzeko, eta praktiken analisia egiteko daukagu (egitasmoak, prozesuak, praktikan dauden ikasleen zereginak), ikasleei arreta emateko prozesuak hobetzeko eta lanbidearen errealitatera hobeto doitzen laguntzeko hobekuntzak proposatzeko.

Epe luzeagorako beste ekintza bat izango da EAEn gizarte hezkuntzak duen lanbide mapa bat sortzea, zein sektoretan gauden eta oraindik non ez gauden jakiteko. Horren helburua bikoitza da: lanbidean aritzeko espazio berriak identifikatzea (beste lanbide elkargo batzuekin alderatuta edo hezitzaileak ez dagoeneko espazioak bistaratuta) eta gure lan jarduneko sektore eta espazioak sendotzea.

Azkenik, gizarte hezitzaileen baldintza sozio-laboralei eragiten dien legedi eta araudiei adi erreparatu behar diegu. Horretarako, gizarte eragileekin batera egingo dugu lan hiru lurralde historikoe-tako gizarte lanetako hitzarmen sektorialen eta eragin dakigukeen legedi berezi guztien jarraipena egiteko. Aurten, arreta berezia eskaintzen ari gataizkio egoitza harrerari buruzko dekretuari (uztailaren 8ko 131/2008 Dekretua, gizarte babesik gabeko haur eta nerabeentzako egoitza-harrerako baliabideak arautzen dituen), haurtzaroa babesteko legeen aldarazpenei (8/2015 Lege Organikoa eta 26/2015 Oinarrizko Legea) eta gizarte zerbitzuen euskal sistemaren zerbitzu zorroari buruzko dekretuari (185/2015 DEKRETUA, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa).

Aitor Alonso, Roberto Benito eta Jabi Jimenez  
Lan eta Gizarte Batzordea

**LANBIDEAREKIKO INFORMAZIOA****HAUR ETA NERABEENTZAKO BABES SISTEMA ALDARAZTEN DUTEN LEGEAK**

Zergatik bi lege eta ez bat?... Hori da Arartekoko Haur eta Nerabeentzako Bulegoko zuzendari Elena Ayarza Elorriaga doktoreak argitzen digun lehenengo galdera; azaroaren 19an eginiko jardunaldian, sarreratxo bat egin zuen adierazteko lege berriak estatalak direla eta orain dela 20 urteko Lege bat aldarazten dutela; izan ere, Lege hori, Kode Zibileko aginduekin batera, autonomi erkidegoetako legediaren adingabekoen eskubideak arautzen zituen markoa izan da. Aipatzen ari garen lege hori, urtarrilaren 5eko 1/996 Lege Organikoa, hain zuzen ere, Adingabekoen Lege Babesari buruzkoa da, zati batean Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren Legea aldarazten dituena.

Bi lege dira, horietako bat Organikoa delako, hau da, Konstituzioan aurreikusitako gai kopuru mugatu bat arautzen duena; kasu honetan, oinarrizko eskubideak egikaritzeari buruzko gaiak. Besteak Lege Organikorako gordeta ez dauden beste gai guztiak arautzen ditu.

Eta bi lege hauek ez dute aurrekoa ordeztzen, aldarazi egiten dute.

Hizlariaren esanetan, paradigma aldaketa bat eragiten duten bi ekarpen egiten dizkigute bi lege horiek. Eta paradigma aldaketa honek hemendik aurrera adingabeekin lotuta planteatzen diren erabaki guztietan izango dute eragina. Bi ekarpen horiek hauek dira:

Adingabekoari arreta handiagoa. Orain arte kontzeptua erabilia izan da, baina ez da behar bezala definitu; eta, bestetik, adingabeak entzuna izateko duen eskubidea. Biek berebiziko garrantzia dute lege berrien irismena balioztatzeke.

Ayarza andreak aldarazpen garrantzitsuenak aipatzen jarraituz, adingabekoekin lotuta botere publikoen jarduketarako printzipio gidariak sartu direla nabarmendu du. Gainera, esan du babes egintzetarako lehentasun ordena dagoela, eta babes neurriak berrikusteko betebeharra ere bai, bai iraunkorrek ez direnak bai iraunkorrek direnak.

Lege berrietan, arrisku egoeren figurak ere modu osoagoan arautzen dira: orain herri-administrazioak aitortuko du; eta babesgabeziarena ere bai, zein zaintza figuratik zedarrituta geratzen baita.

Famili harrera soildu egiten da; hiru modalitate daude orain: Premiazkoa, aldi baterakoa eta iraunkorra. Bestalde, desberdindu egiten dira famili harrera espezializatua eta harrera profesionalizatua; izan ere, azken horretan harrera egilearen edo harrera-egileen artean eta Erakunde Publikoaren artean lan-harremana dago, eta harreman hori Famili harrera egilearen Estatutu batek arautua egon beharko du.

Egoitzetako harrerari dagokionez, lege berri hauen ekarpen nagusienak, hiru urtetik beherako-entzat famili harrera lehenetsi eta harrera baliabideetarako oinarrizko betekizun batzuk sartzeaz gain, hauek dira: IV Atalean xedapen berriak sartzen dira eta, hauen bitartez, jokaera arazoak dituzten adingabeentzako babes berezituak dituzten zentroetan egoitza harrera arautzen da, eta esku-hartzerako mugak ezartzen dira.

Adopzioari dagokionez, legeak hobeto mugatzen ditu honen inguruan lan egiten duten erakundeak (Estatuko administrazio orokorra, autonomi erkidegoak) eskumenak; eta aldaketa handia sartzen du izendapenean: aurrerantzean, ez dugu hitz egingo adopzio baten eskatzaileei buruz, euren burua adopzio baterako eskaintzen duten pertsonen buruz baizik. Gainera, lege berri hauen bitartez, pertsona hauek hobeto jakingo dute zeintzuk diren adopzioaren aurretik eta ostean

**LANBIDEAREKIKO INFORMAZIOA**

dituzten betebeharrak. Bestalde, beharrezko adin aldea ere zehazten da, adopziorako gehie-  
nezko adina zein den jakiteko.

Lagundu gabeko adingabeko atzerritarrei dagokienez, edozein adingabekok dituen eskubideak  
aitortzen dizkie legeak, adingabetasun presuntzioaz gain.

Jardunaldian, bestalde, lege honek genero indarkeriarekin bizi diren haurrak biktimatzat har-  
tzen dituela aipatu zen; horrek haur hauek ikusgarriago jartzen ditu eta euren beharrei eran-  
tzuteko erraztasuna sortzen du.

Hitzaldia amaitzeko, Ayarza andreak beste berrikuntza batzuk aipatu zituen, esaterako proze-  
duren hobekuntza (epeak bateratzea, etxeetan sartzeko baimena, eragingarritasuna bermat-  
zea, e.a.); eta beste batzuk: erditzearen prestakuntzarako baimenak, adopzio egite eta harre-  
ra-egileen berdinketa, genero indarkeriagatik kondenatutakoei biziraupen prestaziorik ez..., e.a.

Eta gizarte hezkuntzako profesional garenoi zuzen-zuzenean eragiten digun beste kontu bat ere  
bai. Izan ere, adingabekoekin ohiko harremana eskatzen duten lanbide, ofizio eta jardueretan  
hasteko eta bertan jarduteko, legeak eskatzen dute egiaztatu egin behar dela sexu askatasun  
edo sexu-ukigabetasunaren aurkako delituen batengatik epai irmoz kondenatuta ez egotea.  
Egiaztapen hori egiteko, sexu gaizkileen Erregistro Zentralak emandako ezezko egiaztapena  
aurkeztu beharko da.

Erregistro hori, Sexu gaizkileen Erregistro Zentrala, ez da existitzen, eta legeak sortzera behar-  
tzen du. Legea argitaratzen denetik 6 hilabeteko epea ematen du horretarako. Bitartean, lege-  
ak agintzen du sexu-askatasun eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delituen egiaztapena Zigor-  
tuen Erregistro Zentralak igorri beharko duela.

Horrek nolabaiteko kezka sorrarazi du gizarte hezitzaileen artean, legeak egiaztapen hori eska-  
tzen dien profesionalak diren aldetik; izan ere, intimitate eskubidea urratuko ote den beldur di-  
ra, epe iragankor honetan egiaztapen hau Zigortuen Erregistro Zentralak igorri beharko baitu.  
Gure ustetan, Zigortuen Erregistroak nekez igorriko du zigor aurrekariaren egiaztapen "orokor"  
bat noiz-eta eskatzen zaiena egiaztapen zehatz bat denean (uztailaren 28ko 26/2015 Legearen  
13. 5 artikulua edukia jasotzen duena).

Hain zuzen ere, inpaktu hori eta babesik gabeko haur eta nerabeak artatzeko araudi berri ho-  
nek Euskadin izango dituen beste inpaktu batzuk aztertu eta legea balioztatzeko, jardunaldian  
beste aditu batzuk ere izan ziren: Miguel Hurtado, Eusko Jaurlaritzako Familia Politika eta Gi-  
zarte Garapenerako Zuzendaritzako lege aholkularia; Consuelo Alonso, Bizkaiko Foru Aldundiko  
Umeen Zerbitziburua eta Carmen Cotelo, Arabako Adingabekoen fiskala.

Jardunaldian partaidetza handia izan zen. Aurkezpenak eta hitzaldiak, araudi berriaren inguru-  
an eginiko aipamenak eta aldarazitako arauen erkatze-taula Arartekoaren web orriaren bitartez  
kontsulta daiteke.

Marisa Alvarez.  
Komunikazio Batzordea

## INTERESGARRIKOAK



Paz, J.I., Fernández, J. [Guía para madres y padres de hijas adolescentes que sufren violencia de género](#)

Sevilla, *Instituto Andaluz de la Mujer*, 2014, 116 p.

Esta Guía es fruto de la experiencia vivida durante estos dos años en el programa de atención psicológica a mujeres menores de edad víctimas de violencia de género en Andalucía, y especialmente en los grupos de apoyo a las familias, donde se detectó la demanda de formación, de apoyo y de orientación ante un problema que les resultaba totalmente nuevo y desconocido. Sus dudas, sus miedos, sus experiencias... sirvieron de base para realizar una guía sistematizada que pretende convertirse en una herramienta para ayudar a otras familias a afrontar la violencia de género que sufren sus hijas, así como para ayudar a profesionales que trabajen en este ámbito.


[Observatorio Vasco de la Juventud, Juventud y participación social en Euskadi. Avance de datos. Vitoria-Gasteiz, Eusko Jaurlaritz-Gobierno Vasco, 2015, 17 p.](#)



Los objetivos de este estudio son: profundizar en los distintos modos de participar ampliando los estudios precedentes; caracterizar tres formas de participación: el asociacionismo, el voluntariado y la realización de acciones sociales concretas; determinar cuáles son las motivaciones y los condicionantes de la participación; establecer indicadores cuantitativos que nos ayuden a conocer hasta qué punto es socialmente activa o no la juventud vasca, y hacerlo junto al colectivo que representa a la juventud asociada en Euskadi, el Consejo de la Juventud de Euskadi.



Moreno-Torres, J., [Modificación del sistema de protección a la infancia y a la adolescencia. Guía para profesionales y agentes sociales](#). Málaga, Save the Children, 2015, 66 p



Asun Llena Berñe, Artur Parcerisa Aran [dirs.] ; Andrea Borison, Xus Moya, Lourdes Parce ... [et al.]

**La acción socioeducativa en medio abierto : fundamentos para la reflexión y elementos para la práctica.**

[Riesgos y retos en la intervención social en un contexto de austeridad: una perspectiva desde las entidades del tercer sector en Navarra. 9 p](#)



Lucía Martínez Virto  
Departamento de Trabajo Social, Universidad Pública de Navarra  
Grupo ALTER y Cátedra de Investigación para la Igualdad y la Integración Social (CIPARAIIS)

**URRENGO BOLETINETAN SARTZEKO PROPOSAMEN ETA IRADOKIZUN ceespv@ceespv.org RA BIDALI AHAL DITUZUE. ERA BEREAN, ZUEN INTERESEKOA DEN EDOZEIN ESPARRUTAN PARTE HARTZEKO GUREKIN HARREMANETAN JAR ZAITEZTE.**